

# askotariko



Baditugu zenbait adibide literatura-tradizioan:

*Apirkako basamortuetan eundaka leguetan iñor be,  
personaik aitu bidea, bixi eztanetan, antxe bixi dira  
eurek-euretara askotariko piztiyek ugeri.*

“Kirikiño”, *Bigarrego abarrak*, 1930

*Aluminigaz ontzi asko ta askotarikoak egiten dira.*

G. Jauregi, *Pisia*, 1935

*Galdera asko eta askotarikoak: iritziak, usteak, gogoak  
eta asmoak.*

*Mitxelenaren idazlan hautatuak*, 1972

Sarri erabiltzen da *askotariko* gaur egun, inguruko hizkuntzetako hitzok gurera ekartzeko:

Es. *diverso, variado, plural, heterogéneo, complejo, múltiple...*

Fr. *assortie, varié, variée, hétérogene...*

En. *varied, various assorted, mixed; manifold, multiple; diverse...*

Hona adibide batzuk, zenbait itzultzaileri jasoak:

La concha de los foraminíferos puede presentar **diversos tipos de ornamentación**, como espinas, cóstulas, fisuras, carenas, etc.

Rosa Domenech eta Jordi Martinell, *Introducción a los fósiles*, 1996

Foraminiferoen maskorrek **askotariko apaindurak** izan ditzake: arantzak, kostulak, pitzadurak, karenak, eta abar.


Aintzane Atela eta Miren Arratibel [itz.], *Fosilen atarian*, 2004

Et dans ses chantiers navals on fabrique **toutes sortes de bateaux**, ceux destinés a la haute mer, ceux qui vogueront le long du Nil jusqu'à la première cataracte et ceux à fond plat pour les marécages entourant la ville.

Denis Guedj, *Le Théorème du perroquet*, 1998

Hango ontzioletan, berriz, **askotariko ontziak** egiten dira: bai itsas zabalekoak, bai Nilo ibaian barrena joango direnak, lehenengo ur-jauziraino, eta bai hondoa laua dutenak, hiri inguruko zingiretarako.

Jon Muñoz [itzul.], *Loroaren teorema*, 2005 (ZIO bilduma)



In their fascinating book *Judgement under Uncertainty*, Tversky and Kahneman describe a **different variety** of the seemingly irrational innumeracy that characterizes many of our most critical decisions.



J. Allen Paulos, *Innumeracy. Mathematical Illiteracy and Its Consequences*, 1998

Beren *Judgement under Uncertainty* liburu liluragarrian, adibide ugari aurkezten dituzte Tverskyk eta Kahnemanek, gure erabaki garrantzizkoenetan askotan ageri dugun matematika-ezjakintasun itxuraz irrazional horren **askotariko aldaerak** ongi erakusten dituztenak.

J. Zabaleta [itz.], *Zenbakirik gabe bizi. Matematika-ezjakintasuna eta haren ondorioak*, 2006 (ZIO bilduma)

Motz gertatzen da, ordea, **askotariko** bera bakarrik, hasieran aipatu ditugun erdal erabilera, hitz eta kontzeptu **guztiak** euskaraz emateko. Adibiderik adibide ikusi behar litzateke.

**Zuk zeuk egiazta dezakezu itzultzaileek zer nolako ordainak erabili dituzten erdal erabilera horiek emateko.**

**Esteka bat duzu horretarako Euskara Errektoreordetzaren web-orrian:**

